



KONTSEILUBURUA: Lexuri Ugarte Aretxaga

KONTSEILUKIDEA: Inés Vadillo Alzola

KONTSEILUKIDE-IDAZKARIA: Daniel Martínez Monge

Gasteiz, 2020ko abenduaren 21a.

Aztertu da Gardentasunaren Foru Kontseiluan _____ jaunak (NAN: _____ ; egoitza, jakinarazpenetarako: XXXXX kalea _____ ; helbide elektronikoa, jakinarazpenak eskueran jartzeko:) aurkeztutako erreklamazioa, informazio publikoa eskuratzeko 2020ko maiatzaren 11n aurkeztu zuen eskaera ezestearen kontra.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Espedientean dagoen dokumentaziotik ondorioztatzen denez, 2020ko maiatzaren 11n jaunak eskaera bat aurkeztu zuen Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Elektronikoa, 2014 eta 2019 artean (biak barne) Arabako Lurralde Historikoko adinekoen egoitzetan ezarritako zehapen, isun edo zigorrei buruzko datuak eskuratzeko.

Bigarrena.- Gizarte Politiken Saileko foru diputatuaren uztailaren 28ko 112/2020 Foru Aginduaren bidez, erreklamatzaillearen eskaera ezestea ebatzi zen; izan ere, “zehapen prozedura baten edukia argitaratzea edo, hala badagokio, bertan alderdi izan ez diren hirugarrenek hura ezagutzeak egoitzen titularrei ekarriko lieke ezkutuko zehapena edo hura larriagotzea”, eta “gizarte zerbitzuen arloko araudiak ez du zehapen gisa jasotzen zehapenen araubide juridikoan zehapen ebazpenen edukia eskuratzeko edo argitaratzea (...)”.

Hirugarrena.- 2020ko irailaren 25ean, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Elektronikoa jaunaren idazkia sartu zen, Gizarte Politiken Saileko foru diputatuaren 112/2020 Foru Aginduaren aurkako erreklamazioa aurkezteko Gardentasunaren Foru Kontseiluan, eskatutako informazioa eskuratzeko asmoz.

OINARRI JURIDIKOAK

1. Erreklamatzailleak egindako eskaerari dagokionez, gaiari sakonki heldu baino lehen, aztertu behar da ea eskaerak betetzen dituen erreklamazio hori azaltzeko beharrezko diren betekizunak; izan ere, Gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren 35.5 artikulua arabera, oinarritzko legerian ezarrita daude, hau da, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legean.



2. Erreklamazioa aurkezteko epeaz den bezainbatean, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legeak dio 24.2 artikuluan ezen erreklamazioa aurkezteko epea hilabete izango dela aurkatutako egintza jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita, eta, hain zuzen, epe horri heldu zion erreklamatzaileak, zeren eta 112/2020 Foru Agindua, 2020ko uztailaren 28an emana, irailaren 22an jakinarazi baitzen eta idazkia joan den irailaren 25ean sartu baitzen Arabako Foru Aldundiaren Erregistroan.
3. Nola eta Arabako Foru Aldundia den erreklamazioa aurkezten zaion erakundea, bat dator Gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren aplikazio eremu subjektiboarekin.

Beste alde batetik, bat etorri 1/2017 Foru Arauaren lehen xedapen gehigarrian eta Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 21eko 5/2017 Foru Dekretuan xedatutakoarekin, Gardentasunaren Foru Kontseiluak, zeinari aurkeztu baitzitzaion erreklamazioa, badu foru erakunde horren gaineko eskumena.

4. Behin egiaztaturik erakunde erreklamatu Gardentasunaren 1/2017 Foru Arauari lotzen zaiola, Gardentasunaren Foru Kontseiluaren eskumen subjektiboa eta erreklamatzailearen legitimazioa, egiaztatu behar da, ondotik, badela egiaz informazio publikoaren eskaera bat, zeren eta, 1/2017 Foru Arauaren eta otsailaren 21eko 5/2017 Dekretuaren arabera, Kontseilu horrek ez baitu eskumenik bestelako auzirik aztertzeko.
5. Erreklamazioaren xedea da informazio publikoa eskuratzeari buruzko esanbidezko ebazpena, hau da, aipatutako 112/2020 Foru Agindua, zeinaren bidez ukatu baitzitzaion informazioa eskuratzea erreklamatzaileari.
6. Lehen adierazi den bezala, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeari dagokionez, Gardentasunari, herritarren parte hartzeari eta gobernu onari buruzko otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren 30. artikulua oinarritzko legeriara jotzen du, hau da, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legea. Bestalde, aipatutako legearen 19.3 artikulua honako hau xedatzen du: "eskatutako informazioak eragiten badie behar bezala identifikatutako hirugarrenen eskubide edo interesei, hamabost eguneko epea emango zaie egokitzen jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten. Eskatzaileari horren berri eman beharko zaio, bai eta ebazpena emateko epea etengo dela ere, harik eta alegazioak jaso edo alegazioak aurkezteko epea igaro arte". Izapide hori funtsezkotzat jotzen da, sarbidearen eraginpean egon daitezkeen pertsonak edo erakundeak ebazpena eman aurretik komenigarritzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal dituztela ziurtatzeko, edo, hala badagokio, adierazteko ez daudela informazioa eskuratzearen aurka.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Gardentasunaren Foru Kontseilua Consejo Foral de Transparencia

Bada, Gizarte Politiken Saileko foru diputatuak 112/2020 Aginduan adierazi zuenez, zehatutako zentroa eta zentro horren enpresa titularra identifikatzeak legean aurreikusi gabeko zigorra ekarriko luke, eta, beraz, ezkutukoa eta baimendu gabea; beraz, ulertzen da eskatutako informazioa eskuratzeko interesak kaltetu litzakeela. Hala ere, espedientea aztertu ondoren, ez da ikusten alegazioak aurkezteko epe hori eman zaienik Arabako Lurralde Historikoko adinekoen egoitza zentroen enpresa titularrei.

Ondorioz, kontuan hartuta eskatutako informazioak uki ditzakeen hirugarrenak behar bezala identifikatuta geratzen direla, eta Kontseilu honetan ez dagoenez jasota entzunaldiko izapidea eman zaienik, irregulartasun hori ikusita, bidezkoa da eskaera ebazteko prozedura atzera eramatea gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legearen 19.3 artikuluan jasotako alegazio-aldia ematen den unera, eta, horren ostean, izapideekin jarraitzea, harik eta dagokion ebazpena eman arte.

Horregatik guztiagatik, Gardentasunaren Foru Kontseiluak, aho batez, hau hartu du:

EBAZPENA

Lehenengoa. Agintzea eskaera ebazteko prozedura atzera eraman dadila seigarren oinarri juridikoan aipatutako alegazio-aldia ematen den unera; horren ondoren, prozedurak aurrera jarraitu behar du harik eta kasuan kasuko ebazpena eman arte. Ebazpena emateko epea hilabetekoa da, ebazpen hau jakinarazten denetik kontatzen hasita, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legearen 19.3 artikulua aplikatzearen ondoriozko epearen eteteari kalterik egin gabe.

Bigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beraren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Lexuri Ugarte Aretxaga
Kontseiluburua

Inés Vadillo Alzola
Kontseilukidea

Daniel Martínez Monge
Kontseilukide-idazkaria